

«Ablazioari aurre egiteko bidea ez da kriminalizaziora eta epaitzera jotzea, heziketa baizik»

Afrikar basati horiek» pentsatzek ez diola ablazioaren aurkako borrokari mesederik egiten nabarmendu nahi izan du Fatima Djarra Sanik. «Bidea ez da kriminalizaziora eta epaitzera jotzea, heziketa eta sentsibilizazioa bultzatzea baizik».

Uda aurreko garaian bereziki lanpetua egoten da Fatima Djarra Sani Munduko Medikuek elkarteak Iruñean duen egoitzan. Ablazioa egiten den herrialdeetako gurasoak dituzten neskatilak, izan ere, senideengana oporraldia igarotzera joan ohi dira, eta, «ohiturari jarraiki», genitalak erauzteko arriskua izaten dute. Osasun ondorioez mintzo da Sani, erauzketan hiltzeko, gaixotasun bat hartzeko edota etorkizunean osasun arazoak izateko arriskua larria baita.

Zer dela eta hasi zinen ablazioaren aurkako borrokan? Zerk eraman zintuen une zehatz batean erabaki hori hartzera?

Aitaren aldetik oso tradizionala den familia batetik nator ni, eta, beraz, ohikoa zen familiako emakumeei ablazioa egitea. Gaia oso-oso gertukoa zitzaidan, baita dakartzan arriskuak eta ondorioak ere. Jaso dugun heziketa halakoa izan denez, txikia

zarenean ez zara gertatzen ari denaren jakitun, ohikoa den gauza iruditzen zaizu emakume guztiei ablazioa egitea. Handitzen joan nintzen heinean hasi nintzen konturatzen ohitura

horrek dakartzan ondorioez. Gelditu eta zera pentsatu nuen: «Zer egiten ari dira? Zergatik hiltzen dira emakumeak? Zergatik sufritzen dute horrenbeste neskatilek?». Ablazioa arrazoi

ugarirekin justifikatzen dute, baino bakar batek ere ez du oinarri objektiborik. Tradizioak indartzen du ablazioaren indarra. Orain milaka urte hasi ziren emakumeei genitalak erauzten eta kontserbadoreak diren familietan indar handia du oraindik orain tradizio horrek.

Nire azalean bertan bizi izan nuen genitalen erauzketa, eta arazo gertutik ezagutzen dudako erabaki nuen ablazioaren kontra lan egin behar nuela.

Ohitura eta tradizioez mintzo zara, baina horiek ere hasiko ziren aldatzen.

Egoera pixkanaka aldatzen ari da bai, baina ikusteko dago zer gertatuko den aurrera begira. Gure jatorriko herrietan ablazioa debekatzen duten legeak daude, baina ez dira betetzen, ez dagoelako hori zainduko duen inor. Une honetan nekazaritza gune askotan erauzketa egiten jarraitzen da.

Uda garaia gertu dago, oportetan gurasoen jatorrizko herrietara joaten diren neskatila askok ablazioa jasateko arriskua dute, hala nabarmendu du Bartzelonako Unibertsitateak egindako ikerketa batean.

Bai. Gurasoen jatorrizko herrialdeetako pertsona helduak dira ablazioa egiten dutenak,

eta haurren gurasoek maiz ez dute ezetzik esaten.

Gurasoek ez dutela ezetz esaten diozu. Azken batean tradizioari uko egitea litzateke, ezta?

Bai, inolako oinarririk ez duen tradizioa izanik ere, jende as-



Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, genital femeninoen erauzketaren ondorioak 140 milioi lagunek pairatzen dituzte munduan, besteak beste, gernu infekzioak, sexua harremanak izateko zailtasunak edota erditzean arazo larriak izatetik eratortzen direnak. Jada jasan duten emakumeei, urtero-urtero ablazioa jasateko arriskua duten 2 milioi neskatilak gehitu behar zaizkie.

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren baitan sortutako

Afrikako hainbat herrialdetan, Somalian esaterako, neskatilen gehiengoak jasaten du ablazioa.
Sean WARREN | THINKSTOCK

